

HAUR LITERATUR ARETOA



1. Helburuak

- Umeen artean euskararen erabilera eta euskal literaturaren hedapena bultzatzea.
- 3-12 urte bitarteko umeak literaturaren mundura modu aktiboan hurbilaraztea.
- Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokak sortzen duen interesetik abiatuz, bilduma berriak eta gomendagarriak ume, guraso zein irakasleei hurbilaraztea.
- Irakurketa eta idazketari begira umeek dituzten galderei erantzuna ematea: nola egiten den liburu bat, ilustrazioa, idazlearen lana, argitaletxearen lana...

2. Metodologia

Umeak adin tarteka sailkatzen ditugu, irakurzaletasuna modu aktiboan eta adin bakoitzari egokitutako ekintzen bitartez bultzatzeko.

2.1.- Haur Hezkuntza

2.1.1.- Erakusketa girotua

2.2.2.- Ipuin antzeztua

2.2.- Lehen Hezkuntza (1+2. zikloak)

2.2.1.- Erakusketa girotua

2.2.2.- Aukera bi:

- Antzerkia
- Ipuin kontalaria

2.3.- Lehen Hezkuntza (3. zikloa)

2.3.1.- Erakusketa girotua

2.3.2.- Liburu erraldoia

2.3.3.- Idazleekin elkarrizketak

2.1.- HAUR HEZKUNTZA

(4-6 urte)

2.1.1. Erakusketa girotua: Aurreko urteko liburu gomendagarri eta urteko argitalpen berriekin osatutako erakusketa girotuan hartuko dute parte. Bertan, begirale bat egongo da, umeak literaturaren munduan murgiltzen laguntzeko. Bestalde, HLA hasi baino aste pare bat lehenago aurreko urteko liburu gomendagarriak eta aurtengo argitalpen berriak jasotzen dituen irakur gida jasoko dute ikastetxean.

2.1.2. Ipuin antzeztua: Haur Hezkuntzako ikasleentzat Berbaroko antzerki taldeak urtero hiru ipuin moldatu eta ipuin antzeztuak eskainiko ditu itzal antzerkiaren bitartez. Umeak talde txikietan sartzen dira eta ohiko antzerkietan baino askoz garrantzi handiagoa hartzen du hurbiltasunak.

2.1.1.- HH: Erakusketa girotua

Erakusketa girotua: Apaletan dauden liburuekin gozaten laguntzeko begiralea izango dute eta ingurua girotuta egongo da. Bestalde, ume guztiek irakur gida bat jasoko dute lehenago ikastetxean.



2.1.2.-HH: Ipuin antzeztua

Ipuin antzeztua: Berbaroko antzerki taldeak Haur Hezkuntzakoentzat liburu gomendagarrien artean aukeratu eta moldatzen dituen ipuinetan oinarritutako antzerki saioen hainbat momentu.



2.2.- LEHEN HEZKUNTZA

1eta 2.zikloak (6-10 urte)

2.2.1. Erakusketa girotua. Lehen hezkuntzakoekin begiraleen dinamizaziopean, liburuen inguruko jokoak egiten dira talde txikietan eta irakurtzeko tartea ere uzten zaie. Kasu honetan ere irakur gida banatzen zaie aste batzuk lehenago.

2.2.2.a. Ipuin Kontalariarekin saioa: Herri txikietan, ipuin kontalariarekin saioa izaten dute.

edo

2.2.2.b. Antzerkia: Herri handiagoetan, antzerki talde profesionalaren saioa izaten dute. Ikastetxe desberdinetako taldeak batu eta behar beste emanaldi ematen dira.

2.2.1.-LH (1+2): Erakusketa girotua

Aurreko urteko liburu gomendagarri eta urteko argitalpen berrien erakusketa girotua: Apaletan adinaren arabera sailkatuta dauden liburuen artean, begiralearen dinamizaziopean ibiliko dira umeak, talde txikietan banatuta. Irakur gida ere jasoko dute.



2.2.2.a- LH (1+2): Antzerkia

Antzerkia: Herri handietan, antzerki talde profesional batek 50' inguruko saioa eskeiniko du. Durangon, azkeneko urteetan egon diren taldeen adibideak dituzue ondorengoak.



- **Antzerkiak:**
 - 03/04: Taupada *Printze txikia*
 - 04/05: Taun-Taun *Galtzerdia*
 - 05/06: Zenbat gara *Amona Paltxikaren altxor ezkutua*

2.2.2.b- LH (1+2): Ipuin kontalaria

Ipuin kontalaria: Herri txikiagoetara ipuin kontalariak joaten dira gelaz gela, talde txikietan, ipuinak kontatzera. Iaz HLA-n parte hartu zuten ipuin kontalarietako batzuen adibidea duzue behekoa.



Adibidez

- Pello Añorga
- Xabier Olaso
- Alaitz Muro
- Oihulari Clown

2.3.- LEHEN HEZKUNTZA

3. zikloa (10-12 urte)

2.3.1. Erakusketa girotua: Gainontzeko taldeek bezala erakusketa girotuan hartuko dute parte LH-ko 3. ziklokoek ere. Irakurtzeko tarte handiagoa izango dute hauek, begiralearen lana ezkutuago geratuko da hortaz. Gainontzeko guztiek bezala pare bat aste lehenago irakur gida jasoko dute.

2.3.2. Liburu Erraldoia: Lana hile pare bat lehenago hasten da ikastetxeetan: Liburu erraldoia (45cm x 70cm) ikastetxe guztietatik pasatuko da eta bertan, ikastetxe bakoitzak bere testu, ipuin, poema e.a. idatzi eta marrazteko aukera dauka.

2.3.2. Literatur lanen irakurketa eta idazleekin elkarrizketa: HLA hasi baino hile pare bat lehenago, ikastetxearen laguntzaz liburu gomendagarrien artean, gazteek irakurriko dituzten liburuak aukeratzen dira. Gero, HLA-n, aukeratutako liburu horien idazleekin elkarrizketak izango dituzte gazteek.

2.3.1.- LH(3): Erakusketa girotua

Aurreko urteko liburu gomendagarri eta urteko argitalpen berrien erakusketa girotua: Gainontzeko taldeek bezala, erakusketa girotua izango dute eta irakur gida jasoko dute. Hemen, azkeneko urteetako irakur giden adibide txikia.



2.3.2.- LH (3): Liburu erraldoia

Liburu erraldoia: Urtean zehar ikastetxe desberdinetatik pasatu ondoren, Durangoko Euskal Liburu eta Disko azokako HLA-n egongo dira liburu erraldoiek ikusgai. Hona adibide bat:



2.3.3.- LH (3): Idazleekin elkarrizketa

Idazleekin elkarrizketa: Ikastetxean landutako liburuen gaineko gogoetak helaraziko dizkiete ikasleek aukeratutako idazleei.



3. Ebaluaketa

● HLA amaitu ondoren, parte hartu duten ikastetxe guztietako irakasleek balorazio orria bete beharko dute.

● Balorazio orria kontutan hartuta, egindakoaren memoria pasatuko zaio udalari.

Beraz, HLA, ekintza bera hasi baino pare bat hilabete lehenago hasten da aurre-prestaketa lanekin eta memoria egin ondoren bukatzen da.



B E R B A R O
e l k a r t e a

Kontaktua:

Berbaro Elkartea
Pinondo 1, 267 p.k.
48.200 Durango

Gazte arloko dinamizatzailea:

Oihane Barrutia

Tel. 946202540

gazteak@berbaro.com

www.berbaro.com